

Bizkaiko Historiaren ibilbidea kartel adierazgarrien bidez Ondare Aretoko *Hormetan* erakusketan

Maiatzaren 27ra arte, *Hormetan* 1975. urtean hasitako Bizkaiko kartelei buruzko erakusketak erakutsiko du. Kike Infame eta Álex Oviedo dira erakusketaren komisarioak.

Bilbon, 2023ko martxoaren 20an. Hormetan, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Ondare Aretoran antolatzen duen erakusketak gure historia berri-berrian zehar egindako ibilbide bat eskaintzen du, gure kaleetako hormetako irudien bidez hasi eta ondoren mugikorretako pantailetakoa irudien bidez kontatuta. 1975etik gaur egunera arte, kartelak une bakoitzeko errealitatera egokitu dira, eta azken lau hamarkadetan bizi izandakoaren kronista mutu bihurtu dira.

Lorea Bilbao Ibarra Euskara, Kultura eta Kiroleko diputatuak Ondare Aretora maiatzera arte izango duen erakusketak berria aurkeztu du gaur goizean, Kike Infame eta Álex Oviedo erakusketako komisarioekin batera.

Erakusketak karteletan jartzen du arreta, eta, bereziki, haiek diseinatu dituzten egileengan. Lagina 1975ean hasi eta gaur egunera arte iristen da. Lau fokutan zentratzen da: politikoa eta soziala; komertziala; kirolekoa eta kulturala. *Hormetan* erakusketan, garai ezberdinetako kartelen 60 erreproduzio eta jatorrizkoen hogeita hamar donazio daude, Ondare Aretoko erakusketan soilik erakutsiko direnak. Kartel horien artean, Néstor Basterretxearen senitartekoen erakusketarako lagapenak nabarmentzen dira, Ama Lur filmaren 1968ko karteletik hasi eta azken lanetako batekin amaitzeko, Bermeoko artistak kartelaren historian izan duen zeregin garrantzitsua erakutsiz.

Nabarmentzekoak dira, baita ere, Erramun Mendibelandak utzitako jatorrizko lanak; izan ere, antzerkiaren bidez eta, bereziki, txotxongiloen munduaren bidez egile horrek kulturarekin duen konpromisora hurbiltzen gaitu. Deigarria da Mari Puri Herrerok utzitako linotipia. Haren 14 kopia baino ez daude, eta egileak 1978an Mari Jaia pertsonaia agurtu zuen, Aste Nagusiaren arima gisa jarraipenik izango ez zuela pentsatuz. Juan Carlos Eguillorren Bilboko Jaietarako obra enblematikoekin batera egongo dira biak. Sortzaileak Aste Nagusiko 1978ko eta 1987ko kartelak egin zituen, eta diptiko bat osatu zuen, erakusketan ere gozatu ahal izango dena. Garai berean jarraituz, Joseba Prieto dago, zinema munduko erreferentea da bera Pedro Olea zuzendari bilbotarrarekin izan duen lankidetzagatik. Izan ere, Oleak Prietoren lan batzuk utzi ditu Ondare Aretoran erakusgai izateko.

Euskal artistek etengabeko presentzia izan dute kartelismoan. Horixe da Ibarrola familiaren kasua. Albertok, Joxek eta Naiel Ibarrolak ekoizpen artistiko garrantzitsua garatu dute inguruan, *Hormetan* erakusketan islatzen dena.

Politikaren arloan, Bittor Allendek, EMK taldeko kideak, talde horren kartel garrantzitsuenetako batzuk, Álvaro Gurrearekin batera egindakoak, erakusten ditu.

Era berean, Jabi Ubiernak 80ko hamarkadan ezker abertzalearen karteletan aktiboki parte hartu zuen eta *Euskal Herriko Kartelak* entziklopedian 90ko hamarkadan egin zuen lanaren adibide batzuk ikus ditzakegu.

David Abajo arte grafikoak finkatu ziren garai baten ordezkari bikaina da, eta kartel komertzialak gure historian izan duen garrantzia erakusten du hainbat posterren bidez.

Kartelez hitz egitea tauromakiaz hitz egitea ere bada. Espazio horretan Luis García Campos nabarmentzen da, eta jatorrizko kartel batzuk ikusi ahal izango ditu bisitariak, Isabel Isusi alargunari esker.



Kultura eta, bereziki, musika Hopper-Ink bezalako balio sendotuek irudikatzen dute. Balio horiek Guggenheim edo Vudumedia-ko gauen grafikoa garatu dute, iraganeko eta oraingo umorearekin nahasten duen proposamen originalarekin. Horretaz gain, belaunaldi berrien lana ikus dezakegu, hala nola Smoke Signal Studio-ren Markel Urrutiarena.

Erakusketaren osagarri, bibliografia oso bat dago, gure kartelismoari buruz egin diren liburuak kontsultatzeko aukera ematen duena, bai eta kartel bizidunen proiektio bat ere, komunikabideak iraganeko paperetatik gaur egungo markesinetara, esaterako, izan duen bilakaera dokumentatzeko.

Joan den abenduan Kike Infame-k eta Álex Oviedok *Hormetan, Kartelak Bizkaian/Carteles en Bizkaia* liburuak argitaratu zutenetik sortu zen erakusketa, eta, horrela, laginaren ezinbesteko katalogo bihurtu da. Erakusketak, gainera, jardueren, hitzaldien eta tailerren programa bat izango du, beren bizitza eta sormena kartelei eskaini dietenen errealitatean sakondu ahal izateko.

Hormetan erakusketa Bizkaiko Foru Aldundiaren *Ibiltari* programaren barruan dago; beraz, erakusketa ibiltaria izango da, eta Euskal Herriko hainbat udalerritan bisitatu ahal izango da.

***Hormetan* erakusketari buruzko tailerra eta hitzaldiak**

Erakusketak iraungo duen bi hilabeteetan kartelismoari buruzko informazioa osatuko duen programazioa egingo da.

Lehenengo hitzaldian, autore beterano batek nazioarteko proiektio artistak batekin hitz egingo du "Kartelak. Atzo eta gaur" solasaldia Bittor Allende eta Raisa Alavak eskainiko dute apirilaren 20an 18:30etan, moderatzaileak Kike Infame eta Álex Oviedo izanik.

Maiatzaren 13an 17:30tan "Jaiak. Kartelak eta postalak" familia-tailerra izango da eta dinamizazioa *Detalleres* eskutik.

Maiatzaren 18an, arratsaldeko 18: 30tan, *Pechakucha*, Higinia Garay, Ane Pikaza, Crisiscreativa eta Cuchillo artistekin eskainiko da. *PechaKucha* aurkezpen-formatu bat da, eta hainbat sortzailek modu sintetikoan erakusten dute beren lana, eta hausnartu eta iritziak eta informazioa trukatzeko dituzte.

***Hormetan* ofrece en Sala Ondare un recorrido por la Historia de Bizkaia a través de un centenar de carteles icónicos desde 1975**

Hasta el 27 de mayo se expondrá la muestra *Hormetan* sobre los carteles de Bizkaia desde 1975 cuyos comisarios son Kike Infame y Álex Oviedo.

Bilbao, 20 de marzo de 2023. *Hormetan*, la nueva exposición que organiza la Diputación Foral de Bizkaia en Sala Ondare de Bilbao, ofrece un recorrido de nuestra historia más reciente contada desde los muros de nuestras calles hasta las pantallas de los móviles. Desde 1975 hasta la actualidad, los carteles se han adaptado a la realidad de cada momento convirtiéndose en cronistas mudos de lo vivido en las últimas cuatro décadas.

La diputada de Euskera, Cultura y Deporte, Lorea Bilbao Ibarra, ha presentado esta mañana junto con los comisarios de la muestra Kike Infame y Álex Oviedo la nueva exposición que alberga Sala Ondare hasta mayo.

La exposición pone el foco en los carteles y, especialmente en las autoras y autores que los han hecho posibles. La muestra comienza en 1975 llegando hasta la actualidad y centrándose en



cuatro focos: político y social; comercial; deportivo y cultural. *Hormetan* consta de 60 reproducciones de carteles representativos de las diferentes épocas y treinta donaciones de originales y carteles que se mostrarán de forma exclusiva en la muestra de la Sala Ondare. Entre estos carteles destacan las cesiones para la exposición de los familiares de Néstor Basterretxea, desde el cartel de la película *Ama Lur* de 1968 hasta uno de sus últimos originales, mostrando el relevante papel del artista de Bermeo en la historia del cartel.

Destacan, igualmente, los originales cedidos por Erramun Mendibelanda en los que nos acerca a su compromiso con la cultura a través del teatro y, en especial, del mundo de los títeres. Llama la atención la linotipia cedida por Mari Puri Herrero, de la que sólo existen 14 copias, en la que la autora despedía, allá en 1978, al personaje de Mari Jaia pensando que no tendría continuidad como alma de la Aste Nagusia. Ambos estarán acompañados por las obras emblemáticas de Juan Carlos Eguillor para las Fiestas de Bilbao. El creador realizó los carteles de 1978 y 1987 de Aste Nagusia, formando un díptico que se podrá disfrutar también en la muestra. De la misma época, Joseba Prieto es un referente del mundo del cine por su colaboración con el director bilbaíno Pedro Olea que ha cedido a la exposición algunos de sus trabajos más representativos.

Los artistas vascos han tenido una constante presencia en el cartelismo. Es el caso de la familia Ibarrola. Agustín, José y Naiel Ibarrola han desarrollado una relevante producción artística en el medio que queda reflejada en *Hormetan*.

En el campo político, Bittor Allende, miembro del equipo EMK, ofrece algunos de los carteles más significativos de la formación, realizados de manera conjunta con Álvaro Gurrea.

Del mismo modo podemos ver algunas muestras del trabajo de Jabi Ubierna, que realizó en los años noventa la enciclopedia *Euskal Herriko Kartelak* y que colaboraba activamente en la cartelería de la izquierda abertzale en los años 80.

David Abajo es un perfecto representante de una época en la que las artes gráficas se consolidaron y a través de diversos pósters muestra la relevancia del cartel comercial en nuestra historia.

Hablar de carteles es hacerlo también de tauromaquia, un espacio en el que destaca la figura de Luis García Campos, del que podremos ver algunos carteles originales gracias a su viuda Isabel Isusi.

La cultura y en especial la música está representada por valores consolidados como Hopper-Ink, que han desarrollado la gráfica de *Las noches del Guggenheim*, o de Asier Sanz “Karramarro” de Vudumedia, con su original propuesta que mezcla con humor pasado y presente. Además de ello podemos apreciar el trabajo de las nuevas generaciones como el caso de Markel Urrutia de Smoke Signal Studio.

La muestra se completa con una completa bibliografía que permite consultar los libros que se han realizado sobre nuestro cartelismo y una proyección de carteles animados que documentan la evolución del medio desde el papel en el pasado a los medios digitales como las marquesinas en el momento actual.

La exposición nace a partir de la publicación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia el pasado mes de diciembre del libro *Hormetan, Kartelak Bizkaian / Carteles en Bizkaia*, realizado por Kike Infame y Álex Oviedo, que se convierte así en un imprescindible catálogo de la muestra. La exposición contará además con un programa de actividades, charlas y talleres que permitirán ahondar en la realidad quienes han dedicado su vida y su creatividad a los carteles.

La muestra *Hormetan* se incorpora al programa *Ibiltari* de la Diputación Foral de Bizkaia, de forma que será una exposición itinerante que se podrá visitar en diferentes municipios de Euskal Herria.



Taller y conferencias sobre *Hormetan*

Durante los dos meses que dure la exposición se llevará a cabo una programación que complete la información sobre el cartelismo.

En una primera charla un autor veterano charlará con una artista de proyección internacional. El 20 de abril a las 18:30 horas se ofrecerá en Sala Ondare “Carteles. Ayer y hoy”, una charla con Bittor Allende y Raisa Álava moderada por Kike Infame y Álex Oviedo.

El 13 de mayo a las 17:30 horas se celebrará el taller familiar “Fiestas. Carteles y postales” estará dinamizado por Detalleres.

El 18 de mayo a las 18:30 horas será el momento de “Pechakucha”, conferencia con Higinia Garay, Ane Pikaza, Crisiscreativa y Cuchillo. Un PechaKucha es un formato de presentación en el que diferentes creadores muestran de forme sintética su trabajo y reflexionan e intercambian opiniones e información.